



Gizarte-diagnostikoa egiteko eta bazterkeria ebaluatzeko baliabide bateratuak

TERMINOLOGIA ETA IRIZPIDEAK

Osasun-arloa

13.1. adierazlea.- Gaur egun duen osasun-egoera.

Ebaluatu behar dugu ea gizabanakoaren osasun-arazoek eguneroko bizitza eragozten duten, edo, arazo horiek direla eta, egoera berrietara egokitu eta, horrenbestez, bizimodua aldatu behar duen.

- Ez du eguneroko bizitza eragozten duen zailtasunik.**
- Eguneroko bizitza eragozten duten zailtasunak ditu.**
 - Gaixotasun fisikoa.
 - Adimen-gaixotasuna.
 - Alkoholaren eta drogen abusua.
 - Desgaitasuna.
- Eguneroko bizitza larriki eragozten duten zailtasunak ditu.**
 - Gaixotasun fisikoa.
 - Adimen-gaixotasuna.
 - Alkoholaren eta drogen abusua.
 - Desgaitasuna.

13.2. adierazlea.- Osasun-arretaren premia.

- Prebentziorako eta zaintzarako lehen mailako osasun-arreta behar izaten du noizbehinka. Premia horiek, ordea, ez dute eragozpenik sortzen eguneroko bizitzan.**
- Jarraipena egin behar zaio:**
 - Osasun-zentroetan (lehen mailako osasun-arreta).
 - Zonaldeko osasun mentaleko zentroan edo ospitale psikiatriko batean.
 - Laguntza anbulatorio espezializatua; ospitaleko kanpo-kontsultak.
- Arreta behar du etengabe:**
 - Ospitaleratuta dago.
 - Etxean sendatzen ari da.
 - Zaintza aringarrien premia du.

13.3. adierazlea.- Tratamenduren baten premia.

Tratamendua gizabanakoak berak egin dezakeen edo laguntza eta kontrola behar duen ebaluatu behar dugu.

- Ez du tratamendu jarraiturik.**

Gerta daiteke noizbehinka tratamenduren bat behar izatea.
- Tratamendu jarraitu batzuen premia du.**

Tratamendu mediko jakin batzuen premia du.

 - Osasun fisikoa: farmakologikoa, errehabilitazioa.
 - Tratamendu psikiatrikoa.
 - Mendetasuna gainditzeko tratamendua.
- Tratamendu jarraituen premia du, eta norbaitek kontrolatu egin behar du.**

Tratamendu mediko jakin batzuen premia du, eta norbaitek kontrolatu egin behar du, agindutako tratamendua betetzen duela ikusteko, bai eta osasun-jarraibide orokorrak betetzen dituela ikusteko ere.

 - Osasun fisikoa: farmakologikoa, errehabilitazioa.
 - Tratamendu psikiatrikoa.
 - Mendetasuna gainditzeko tratamendua.

13.3.a. adierazlea.- Medikuak agindutako tratamendua betetzea.

- Tratamendua betetzen du:**
 - Osasun fisikoa: farmakologikoa, errehabilitazioa.
 - Tratamendu psikiatrikoa.
 - Mendetasuna gainditzeko tratamendua.
- Zailtasunak ditu tratamendua betetzeko, edo ez du jarraitutasunik:**
 - Osasun fisikoa: farmakologikoa, errehabilitazioa.
 - Tratamendu psikiatrikoa.
 - Mendetasuna gainditzeko tratamendua.
- Ez du tratamendua betetzen:**
 - Osasun fisikoa: farmakologikoa, errehabilitazioa.
 - Tratamendu psikiatrikoa.
 - Mendetasuna gainditzeko tratamendua.

13.A.1. adierazlea.- Gaur egun duen osasun fisikoa.

- Ez dagokio. Ez du osasun-arazorik.**
- Diagnostikoa egin diote, eta tratamendu bat egiten ari da.**
- Garai batean izandako sintomak eta diagnostikoak ditu. Ez du tratamendu egokirik.**
- Osasun-arazoak ditu. Ikusten da sufritzen ari dela. Ez du tratamendurik.**

13.A.2. adierazlea.- Azken urtean izandako tratamenduak eta ospitaleratzeak.

- Ez du tratamendurik jaso, eta ez dute ospitaleratu.**
- Osasun-arreta espezializatuko tratamenduren bat jaso du, baina ez dute ospitaleratu.**
- Bizpahiru aldiz-edo ospitaleratu dute; larrialdietako ospitaleratzeak ere izan ditu.**

Kontuan izan behar dugu buruko osasun-arazo guztiek ez dutela zertan desgaitasun izan; izan ere, desoreka mental eta psikologikoetako askok —besteak beste, depresioak, larritasun- eta izu-nahasmenduek, eta neurosiek— hobera egiten dute tratamendu psikiatrikoen eta farmakologikoen bidez.

13.B.1. adierazlea.- Tratamendu psikiatriko bidez tratatu beharreko buruko patologia eta nahasmenduak.

- Ez dagokio. Ez du buruko osasun-arazorik.
- Diagnostikoa egin diote, eta tratamendu bat egiten ari da. Hala badagokio, adierazi zer patologia edo nahasmendu duen.
- Balizko buruko patologia edo nahasmendu baten zantzuak ditu, baina ez diote diagnostikorik egin. Zehaztu:
- Haren jokabidea buruko patologia edo nahasmendu baten ondorio da. Ikusten da sufritzen ari dela. Ez du tratamendurik. Zehaztu:

BURUKO PATOLOGIAK EDO NAHASMENDUAK

- Hautzaroan edo nerabezaroan hasitako nahasmenduak.
- Delirium, dementzia, nahasmendu amnesikoak eta beste nahasmendu kognositibo batzuk.
- Gaixotasun medikoek eragindako buruko nahasmenduak.
- Substantziekin lotutako nahasmenduak.
- Eskizofrenia eta beste nahasmedu psikotiko batzuk.
- Gogo-aldartearen nahasmenduak.
- Antsietate-nahasmenduak.
- Nahasmendu faktizioak.
- Nahasmendu disoziatiboak.
- Sexu-nahasmenduak eta sexu-nortasunaren nahasmenduak.
- Loaren nahasmenduak.
- Elikadura-portaeraren arazoak.
- Bulkadak kontrolatzeko arazoak, beste ataletan sailkatu ez direnak.
- Egokitze-nahasmenduak.
- Nortasunaren nahasmenduak.
- Arreta kliniko behar duten beste arazo batzuk.
- Arreta kliniko behar duten beste arazo batzuk: transexualitateak eta barneratutako homofobiak eragindako gatazkak.

13.B.1.a. adierazlea.- Arazoen larritasuna - oinarrizko egokitze-nahasmenduak.

Egokitze-nahasmendua erantzun fisiko bat da; gizabanakoak estres-faktore batzuei ematen dien erantzuna, hain zuzen. Gizabanakoak, estres-faktoreen ezaugarriak direla eta, uste baino ondoez handiagoa bizi du, edo haren jarduera sozialek, profesionalek edo akademikoek okerrera egiten dute.

Berez, estres-faktoreak azaleratzen direnetik sei hilabetera desagertu ohi da nahasmendua. Dena den, sintomak beren horretan jarrai dezakete, baldin eta estres-faktorea kronikoa bada (esate baterako, gaixotasun kroniko eta ezgaitzaile bat).

Ez erabili kategoría hau, baldin eta nahasmenduak beste nahasmendu jakin batean sailkatzeko irizpideak betetzen baditu edo nahasmendua aurretik zuen nahasmendu baten larriagotzea bada.

- Ez du arazo larririk, ez eta oinarrizko egokitze-nahasmendurik ere.
- Arazo larri samarrak ditu, eta oinarrizko egokitze-nahasmenduak ditu, honekin lotuta:
- Arazo larriak ditu, eta oinarrizko egokitze-nahasmenduak ditu, honekin lotuta:

OINARRIZKO EGOKITZE-NAHASMENDUAK (2 eta 3 aukerak):

- gogo-aldarte depresiboa.
- antsietatea.
- antsietatea eta gogo-aldarte depresiboa.
- jokabide-nahasmenduak.
- nahasmendu emozionalak.
- nahasmendu emozionalak eta jokabide-nahasmenduak.

13.B.2. adierazlea.- Azken urtean izandako ospitaleratzeak eta tratamendu psikiatrikoak.

- Ez dute ospitaleratu, eta ez du tratamendu psikiatrikorik izan.
- Tratamendu psikologiko edo psikiatrikoren bat izan du, baina ez dute ospitaleratu.

- Bizpahiru aldiz-edo ospitaleratu dute psikiatrikoan; larrialdietako ospitaleratzeak ere izan ditu.

13.B.3. adierazlea.- Bizitzan zehar izandako ospitaleratzeak eta tratamendu psikiatrikoak.

- Ez dute ospitaleratu, eta ez du tratamendu psikiatrikorik izan.
- Tratamendu psikologiko edo psikiatrikoren bat izan du, baina ez dute ospitaleratu.
- Bizpahiru aldiz-edo ospitaleratu dute psikiatrikoan; larrialdietako ospitaleratzeak ere izan ditu.

13.C. ALDERDIA.- DROGA-MENDEKASUNAK – MENDEKASUNAK.

13.C.1. adierazlea.- Droga-mendekasunak / Mendekasunak.

- Ez du mendekasunik. Drogak kontsumitzeak —baldin eta drogak kontsumitzen baditu— ez dio kalterik eta ondoezik eragiten.
- Drogak neurri gabe kontsumitzen ditu, eta, horren ondorioz, hainbat zailtasun ditu.
- Drogen mende dago.

13.C.2. adierazlea.- Izandako droga-mendekasunak / mendekasunak.

- Ez du gai toxikoak kontsumitzearekin lotutako arazorik izan, eta ez du bestelako mendekasunik izan.
- Gai toxikoak kontsumitu izan ditu, eta arazoak izan ditu. 3 urte baino gutxiagoz.
- Gai toxikoak kontsumitu izan ditu, eta arazoak izan ditu. 3 urte baino gehiagoz.

13.C.3. adierazlea.- Mendekasuna gainditzeko egin dituen tratamenduak.

- Mendekasuna gainditzeko tratamendu bat egin du. Tratamendua ondo amaitu du.
 - Gaur egun, ez du arazorik.
 - Urtebete baino gehiagoz eutsi dio abstinentziari, berriz erori aurretik.
- Mendekasuna gainditzeko tratamenduren bat edo beste egin du.
 - Gaur egun, lehenbiziko tratamendua egiten ari da.
 - Gaur egun, bigarren tratamendua-edo egiten ari da.
 - Tratamendu bat egin du.
 - Bi tratamendu edo gehiago egin ditu.
- Ez du tratamendurik egin mendekasuna gainditzeko.
- Ez dagokio

14. ALDERDIA.- LAN-EZINTASUNA, DESGAITASUNA ETA MENDEKASUNA.

14.1. adierazlea.- Desgaitasun-egoera.

Osasunaren Mundu Erakundeak honela definitzen du desgaitasuna: "gizaki batentzat normaltzat jotzen den eran eta esparruan jarduera bat egiteko muga oro

edo gaitasun falta (urritasun baten ondorioz)”. Aldi baterakoa, behin betikoa, itzulgarria edo itzulezina izan daiteke.

- Ez du desgaitasunik.
- Gaitasun murriztua du, bai eta nabarmen murriztua ere (% 32, gehienez). Sintoma edo arrasto gutxi ditu. Gizabanakoak ez du eragozpenik eguneroko jarduerak egiteko. Lehenengo bi aukerak bereizi egin ditugu: lehenengo aukeran, gizabanakoak ez du desgaitasunik. Dena den, bi aukerek balio bera izango dute, bazterkeria ebaluatzean.
- Desgaitasunaren ondorioz (% 33tik % 64ra arte), zailtasunak ditu. Desgaitasun-mota:
 - Fisikoa.
 - Sentsoriala.
 - Psikikoa.
 - Intelektuala edo mentala.
- Desgaitasunaren ondorioz (% 65etik % 74 arte eta % 75etik % 100era arte), zailtasun larriak ditu. Desgaitasun-mota:
 - Fisikoa.
 - Sentsoriala.
 - Psikikoa.
 - Intelektuala edo mentala.

14.2. adierazlea.- Lan-ezintasunaren egoera.

IRIZPIDEA: Ezintasun iraunkor aitortua izateko, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak berariazko ebazpen bat eman behar du. Aldi baterako ezintasun aitortua izateko, txosten medikoek egiaztatu behar dute.

- Ez dagokio, ez du-eta lan-ezintasunik.**
- Aldi baterako ezintasuna du, edo ezintasun iraunkor partziala.**
 - Aldi baterako ezintasuna: epe luzekoa.**
Aldi baterako ezintasuna du lan egiteko. Dena den, sendatu eta lanera itzuliko da.
 - Ezintasun iraunkor partziala.**
Ezintasuna dela eta, laneko errendimenduak % 33 edo gehiago egin du behera; dena den, ezintasunak ez dio eragozten laneko oinarrizko zereginak egitea.
- Ezintasun iraunkorra du:**
 - Gaur egun duen lanbidean aritzeko, ezintasun erabatekoa.**
Ezin du delako lanbideko oinarrizko zereginik egin; dena den, gizabanakoak beste lanbide batean lan egin dezake.
 - Lanbide orotan aritzeko ezintasun erabatekoa.**
Ezin da ezein lanbidetan aritu.
- Ezintasun iraunkorra du, edo baliaezintasun handia.**
Ezein lanbidetan aritzeko ezintasunaz gainera, gizabanakoak laguntza behar du bizitzako oinarrizko ekintzak egiteko: janzteko, mugitzeko, jateko...

14.3. adierazlea.- Autonomia – Mendetasuna: besteen laguntzaren premia duen ala ez.

- Ez du laguntzarik behar eguneroko jarduerak egiteko.**
- Besteen laguntza behar du jarduera batzuk egiteko:**
- Besteen laguntza behar du beti jarduera batzuk egiteko:**

JARDUEREN ZERRENDA (2 eta 3 aukerak):

- Bere burua zaintzeko oinarrizko jarduerak: jaiki, oheratu, jantzi, jan eta bere burua garbitu.
- Eguneroko bizitzako jarduerak: janaria prestatu, etxea garbitu, etxetresnak erabili...
- Etxe barruan ibili: ohea, aulki gurpilduna, eskailerak, ibiltzeko zailtasunak...
- Etxetik kanpo ibili: garraiobideetan ibili, aulki gurpilduna, makila...
- Komunikatzeko zailtasunak: hitzak ahoskatzeko gaitasuna hartu behar da kontuan, ez komunikazioa koherentea den ala ez. Minusbaliotasun fisikoaren, endekapenezko gaixotasunen eta halakoen ondorio izan daiteke.

14.4. adierazlea.- Mendetasun-maila.

IRIZPIDEA: dagokion foru-aldundiak aitortu behar du mendetasun-maila.

1. mailako mendetasuna: mendetasun arina.

Laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera egiteko, gutxienez egunean behin, edo tarteka laguntza behar du, autonomia pertsonalaren arloan.

2. mailako mendetasuna: mendetasun larria.

Laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera egiteko, egunean bi edo hiru aldiz; dena den, ez du behar kanpoko zaintzaile batek etengabe laguntzea, edo laguntza-premia zabalak ditu autonomia pertsonalaren arloan.

3. mailako mendetasuna: mendetasun handia.

Laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera egiteko, egunean hainbat aldiz, eta, autonomia fisikoa, mentala, intelektuala edo sentsoriala erabat galdu duenez, beste pertsona batek lagundu behar dio nahitaez eta etengabe, edo laguntza orokorra behar du autonomia pertsonalik ezaren ondorioz.

ZUZENBIDE- ETA ADMINISTRAZIO-EGOERA: osasun-arloa.

T.17. adierazlea.- Gizarte Segurantzaren osasun-laguntza.

- Osasun-txartela du, eta prestazio guztiak bermatuak ditu.**
- Lan-baimenaren eskaera bideratzen ari dira, eta aukera handiak ditu lortzeko.**
- Ez da onuraduna: larrialdi-egoeretan soilik du laguntza bermatua.**

T.18. adierazlea.- Desgaitasuna eta eskubideak.

- Ez dagokio.
- Aitortu diote. Aitortutako mailari dagokion eskubideak ditu.
- Behin-behineko egoera:
 - Aitortzeko izapideak egiten ari dira. Ez ditu eskubideak.
 - Izapideak egiten ari dira, mendetasuna berriro aztertzeko.
- Ez diote aitortu, eta ez ditu eskubideak.
 - Desgaitasuna du. Ez diote aitortu, ez ditu-eta administrazio-eskakizunak betetzen.
 - Desgaitasunen bat du, baina ez du ebaluatzerik nahi.

T.19. adierazlea.- Mendetasuna eta eskubideak.

- Ez dagokio.
- Aitortu diote. Aitortutako mailari dagokion eskubideak ditu.
- Behin-behineko egoera:
 - Aitortzeko izapideak egiten ari dira. Ez ditu eskubideak.
 - Izapideak egiten ari dira, mendetasuna berriro aztertzeko.
- Ez diote aitortu, eta ez ditu eskubideak.
 - Mendetasuna du. Ez diote aitortu, ez ditu-eta administrazio-eskakizunak betetzen.
 - Mendetasuna du, baina ez du ebaluatzerik nahi.